

GURUTZEKO JOAN DEUNAREN IKONOGRAFIA EUSKAL HERRIAN

Esan izan da S. Joan Gurutzekoak elite edo goi mailakoen artean izan dauala harrera ona. Klitxe hau onartu edo ez, ondorengo konstatazioa bai dala nabaria: Gurutzeko Joan deuna Euskal herrian ez da izan santu herrikoa.

Teologia ta mistika zaleak, literatura ta olerki maitaleak batez ere ederretsi izan dabe santu haundi honen mezu teologikoa ta idazlana, herri arruntean eraginik izan ez daualarik.

Santu herrikoa ez izateak, eraikuntzak ez eze ikonografia bera ere baldintzatuko dau: basilikak, elizak, baselizak urriak izango dira Gurutzeko Joan deunari eskeiñiak; aldareak, erretaulak eta ikonografia bera ere ez da izango hain ugaria.

Berezkoa danez, ikonografia bikaiñena eta gehientsuena Karmel prailtxe ta mojetxeetan lekututzen da, eta imajiña ta oleo gitxi batzuk beste komunitate eta parroketan.

Konstatazio bera azpimarra geinke euskadiko eskualde guztietan.

Karmel komentuei dagokienez, prailtxe - mojetxe guztiak ez dabe aberastasun bardiña. Ikonografia honetan Nafarroa da probintziarik ugariena, Corella ta Iruña nagusi agertzen diralarik. Alderantziz, gizaldi honetan egindako fundazioetan irudi, oleo gitxi aurki ahal izan dogu. Artean ere, historia egiteko, beharrezkoak dira urteak, noski.

Aldizkari honetan aurkesten ditugun 81 irudiak eta oleoak, XVII, XVIII, XIX eta XX. gizaldikoak dira; datazioa jartzean, ezbaiak nahi baino ugariagoak izan ditugu batzuekaz, eta ai okerkuntzarik ez balego!

Datazioaz buztarturik egilea datorkigu. Irudirik eta oleorik gehienak, ertilari ez ezagunenak edo eskola lantegi entzute gitxikoetan eginak diranez, artelan askoren agiririk edo egilerik ezin izan dogu eskuratu, horregaitik anonimotzat jarri ditugu.

Artelan gehienetan nabari da ertilariaren ondo asma nahia ta leia, baina garaiko santu bizitzaren herri interpretazioa eta herri debozioa, eta santu ospean hiltzen ziranak, hil ondoren egindako marrazki, grabatu, estanpa eta abar, artisten inspirazio gidari izango dira.

Beste talde, zizelkari eta pintatzaileek inspirazio iturri bezala Joan deunak idazitako liburuak eta biografiak, izango ditue, bai eta fraide mojen argibideak eta iritziak ere.

Baldintza guzti honeen zerikusia nabaria da S. Joan Gurutzekoaren ikonografian. Beraz, bereala sumatzen da gertaera narratiboa eza, edo gizarteko jazoeren irudi utsa. Gurutzea, buru hazurra, lumea, liburua, ikuskari mistikoak irudi eta koadro gitxitan falta izango dira, ezaugarri guzti honeek sinbolo eta atribuziorik erabilienak izango diralarik.

Euskal herriko egoaldea zeharkatu dogu gure santuaren arte manifestapenik aipagarrienak bildu eta jaso nahirik. Egindako lan hau irudi eta oleo katalogo zehatza baino, funtsezko bilduma bat gehiago dirudi, «Cántico Espiritual» egilearen ikonografia bat izan dagien bere zale eta maitaleak.

Gurutzeko Joanen ego euskal herriko ikonografia sorta hau balore artistiko haundikoa dala baieztatu daikegu, arte lan bakoitzagaitik emongo ditugun azalpenak erakutsiko deuskuenez. Hemen bilduriko eder lanak sistematikoki sailkatu gabe aurkesten ditugu: kronolojia, estiloa, tipolojia, arte figuratiboa kontutan hartu barik, sailkapen eta antolabide bakarra eskualdea dogula:

ARABA

1. ANONIMOA. (Españako eskolakoa)
Francisco Font'i atribugarri.
1889an Barcelonan erositako tailua.
Gurutzeko Joan deunaren eskulturea.
(136 x 55 zm.)
Moja Karmeldarren monastegiko eleizan. Murgia. Araba.

Soin gaineko ertz hegaletan oleoaz pintatutako apaindurak dituana. Bizartsu eta buru-soil dakusgu Joan deuna irudi honetan. Font, zizelkari ospetsuari ezargarría, batzuen ustez.

2. MANUEL LOSADA.

(1865-1949).

Gurutzeko Joan santuaren pinturea.

Oleoa. (146 × 114 zm.)

Moja Karmeldarren monastegian. Murgia. Araba.

Gaur egun Bilboko «Artelan errestituzio etxean» aurkitzen da, uraren eragiñez pizka bat hondatuta egoalako, barriztuzten. Gurutzeko Joan deuna marratzean, Losadarengan oi dan bezala, izakera ta itxura dira gehien billatutakoa eta lortutakoak. Errealismo bizkorra eta enerjiaz beteriko teknika erabiltzen dauala. Losadaren koadro honetan Santua belaunikoturik, bere soingaineko zuriak ikuslearen begiratu adikorra erakarten dauala dakusgu. Barrenengo planoan gurutz iluntsua. Santuaren eskumakaldean, argi-mutil biren artean Kristo Gurutzatua, burua makurturik dauala. Santua, Gurutzatua samurkiro begiratzen eta Hari besoak zabaltzen, alkarrizketan agertzen da, autu esaldiak irakur daikeguzela.

3. ANONIMOA.

XX. gizaldikoa.

S. Joan Gurutzekoaren eskulturea.

Zementuzkoa dirudi, behar bada pastazkoa.

(173 x 45 zm.)

Moja Karmeldarren monastegiko eleizan. Betoño. Gazteiz.

Eleizan gurtzen dan irudi hau, Frantziatik ekarritakoa da. Ohizko eskema ikonografikoa aurkezten dau, Espainako eta Euskal herriko beste eskultura askoren antzerakoa.

4. FR. JUAN JOSE SANTAMARIA.

1952.

Gurutzeko Joanen pinturea.

Oleoa.

(93 x 73 zm.)

Moja Karmeldarren monastegiko koruan. Betoño. Gazteiz.

Koba itxurazko inguruan, «Cántico Espiritual'en» egilea, esku bular artean gurutzea besarkatzen dauala. Liburu, luma, aurrekaldean; eskuman, goi partean buru-

hazurra; barru planoetan Gazteizko eliza bat. Margo tonalitateak marroi ilun argi dituala.

5. FRANCISCO FONT.

XX. gizaldikoa.

Gurutzeko Joan deunaren eskulturea.

Zurezko tailua.

(160 x 69 zm.)

Praile Karmeldarren eleizan. Gazteiz.

Francisco Font, zizelkari ospetsuak eleiza honetarako 7 irudi landu zituan. Danen gainera Karmengo Amaren irudia da estimagarriena eta lortuena, baina Joan deunaren imajina honetan ere, Font'ek bere maixutasuna agerterazten dau. Azpimarragarria aurpegi eta esku fintasuna, beste zehaztasunetan eskema ikonografiko topikoa jarraitzen dau. Felicia Olave Salaverri andreak, aita Karmeldarren ongile jatorrak, lekaidetxe honi emona.

6. ANONIMOA.

(«circa» 1890).

Gurutzeko Joanen tailua.

(140 x 65 zm.)

Praile Karmeldarren liburutegian. Gazteiz.

Tailu hau oleoz pintatua eta urrezko edergarri batzuek azpindurik aurkesten da. Gazteizen izan zan Aita Karmeldarren lehenengo etxetik, 1883an orain aurkitzen dan komentura eroana, izan daiteke. Hieratikoko egitura aurpegian, baina espresio bizkortasunezko fisonomia daukala ezin ukatu.

7. MAUMEJEAN TAILER-ETXEA.

XX. gizaldikoa.

S. Joan Gurutzekoaren soina, beiratean.

Beiratea.

Praile Karmeldarren eleizan. Gazteiz.

Teresa deunaren eta Gurutzeko Joanen beirate artistikoak eleizako transeptuaren goiko kornisa gainean kokaturik agertzen dira. Maumejean etxean, Donostian egindakoak.

NAFARROA

8. ANONIMOA.
 («circa» 1740).
 Gurutzeko Joan deunaren eskulturea.
 Zur polikromatuzko tailua.
 (137 x 66 zm.)
 Parrokian. Los Arcos. Nafarroa.

Irudi honen datazioa 1740 inguruan jarri daikegu. Urte honetan Juan Angel Nagusia (sic), Diego de Camporredondo eta laguntzaileak eleizako erretaula paregabekoa egiten ebiltzan, imajiña hau aldikotzat onartu daikegu. Tailu barrokoa, polikromia guztiz jatorrez apaindutakoa. Barroko eratakoari dagokionez, dinamismo biziz eta enerjiaz landutako tailu berezia. Jantzien diseinuak zig-zag moldeak dituela eta tolestura behartuak.

9. DIEGO DIAZ DEL VALLE.
 Atribuigarria.
 XIX. gizaldiaren hasierakoa.
 Joan deunaren pinturea.
 Oleoa.
 (124 x 64 zm.)
 Felipenses erlijiosuen elizan. Tutera. Nafarroa.

Casia'ko Errita deunaren erretaulan ikusi daikegu koadro hau. Gurutzeko Joanen berezitasunak jantzi-habituan ikusten ditugu: Erreformaturiko Karmeldarren jantzi-habitu motza ta txiroa baino, «Karmeldar praile Kalzaduen» gehiago dirudi, zabal eta dotoretsu janzten dauala. Ahotik urtetzen lorak! Xehetasun hau bitxikeriatzat jotzen dogu. Nire ustez, balore gitxiko koadro baten aurrean aurkitzen gara.

10. ANONIMOA.
 XVII. gizaldikoa.
 S. Joan Gurutzekoaren pinturea.
 Ohialean oleoa.
 (175 x 110 zm.)
 Filipenses erlijiosuen eleizan. Tutera. Nafarroa.

Eleizan honetako erretaula nagusian, epistola aldetik, dakusgu koadro hau. Erretaulan simetrikoki kokatzen diran tarteetan sei oleo izugarri dagoz, haietatik bat Gurutzeko Joanena. Bakarka asmatu dagoz, ezelako harremanik ez dabela.

11. ANONIMOA.

XVII. gizaldikoa.

Odei baten gainean belaunikaturiko Joan deunaren eskultorea.

Zurezko tailua.

(125 x 60 zm.)

Filipenses erlijiosuen eleizan. Tuter. Nafarroa.

Naiz eta XIX. gizaldikoa izan tailu hau, XVIIIeko estiloan zizelkaturik dago. Errokozko era baino, barroko exajeratua nabariagoa da. Odeiak heurak zizelkatzea, jantzi hain zabaltsuak izatea, tolestura gogor-zorrotzak, diseinua bera, dana barroko exajeratuarena.

12. VICENTE BERDUSAN.

Atribuigarria.

XVII. gizaldikoa.

Gurutzeko Joan deunaren gorespenaren pintura.

Oleoa.

(234 x 157 zm.)

Santa Ana Apaiztegi Kontziliarrean. Tuter. Nafarroa.

Berdusan'ena izan edo ez, margo lan benetan bikaina koadro hau. Joan deuna odei baten belauniko agertzen da, aingeruen bultzadaz gorantz igoten. Ohialaren goi partean Hirutasun Deuna santuaren gorespina ikusmiratzen. Kritikalarien ustez, Berdusán pintatzaile haundiaren zehaztasunak ugari dira pintura honetan, bai eta Claudio Coello eta Madrileko eskolako eragina ere. Margo bizia, pintzelada erraza, diseinuan eta batez ere aurpegian barroko jarrera klasikoa eta inguru lurrun antzekoa dakusguz Berdusan'en oleo honetan.

13. ANONIMOA.

XVII. gizaldikoa.

San Joan Gurutzekoaren eskultorea.

Zurezko tailu polikromatua.

(128 x 62 zm.)

Moja Klaratarren monastegian. Tuter. Nafarroa.

Berdusan'en oleoa eta imajiña hau lehenengo karmeldar oinutsitakoen komentuan egozan, gero Santa Ana apaiztegi kontziliarra biurtu zan komentua hau, eta gaur Santa Ana apaiztegia ezeztatu ondoren, Santa Klara mojen komentuan aurkitzen dira. Jatorrizko polikromiak irauten dau irudi honetan, apaingarriak landarazkoak eta lorezkoak diralarik. Neurri berezkoa baiño txikiagoa dauan zizel lan honek, Gurutzeko Joan deuna gazte itxuran aurkesten deusku.

14. EUFRASIO MARIA.

XVII. mendearen azkenerantz.

Joan deunaren pinturea.

Oleoa.

(252 x 206 zm.)

Karmeldar lekaimetxeko eleizan. Corella. Nafarroa.

Behe eskumako ertz hegalean, honela diño: EUFRAS(ius) M(aria) F(eci)T. Ohial haundi xamarra eta egitura ederrekoa. Santua jezarririk mahi baten aurrekaldean, liburua eta eskuman, idatzi keiñuan, lumea. Goi argirantz begiratzen, non Espiritu Santua uso idurian, odei eta aingeru artean agertzen jakola. Karmeloko ikurdia dauan urre zahardun eta molduraz osoturiko marko batek inguratzen dau ohial guztia.

15. FRAY JUAN DE LOS SANTOS.

Atribuigarria.

(«circa» 1724-30).

Joan deunaren eskulturea.

Zurlan polikromatu bikaina.

(158 x 67 zm.)

Karmeldar lekaimetxeko eleizan. Corella. Nafarroa.

Errokoko eratakoea dala dirudi. Eskultura imajina ederra, neurri normalak baino txikiagokoa. Polikromatu lan bikaina alde guztietan, bai jantzietan, eta bai soineko beste alderdi ez estalduetan. Aurpegia zeharo gazte aurkesten dauala.

16. ANONIMOA.

XVII. mendekoa.

Gurutzeko Joan deunaren pinturea.

Oleoa, tenebrista eredukoa.

(148 x 90 zm.)

Karmeldar lekaimetxeko kapitulu aretoan. Corrella. Nafarroa.

Lauki honetan, gurutzea darian Jerukristogaz alkarrizketan dago Santua. Salbatailearen eta Joanen ahoetatik sortzen diran filakterietan zera hau irakurtzen da: «Joannes, quid vis pro laboribus? - Domine, pati et contemni pro te». Gurutzeko Joan, aldare aurrean belaunikoturik, esku bien artean gurutzea ta liliak dituala, barroko ohial haundia falta ez dala.

17. ANONIMOA.

XVIII. mendekoa.

S. Joan Gurutzekoaren eskulturea.

Tailu polikromatua.

(90 x 54 zm.)

Karmeldar lekaimetxeko behe koruan. Corella. Nafarroa.

Kalitatean eta apaingarrietan eleizan bertan aurkitzen danegaz parekatu daiteke. Azpimarragarriak, batez ere: Soingainekoan eta eskapularioan dakusguzan landarezko apaindurak, batzuk oleoz pintatuak, besteak zizta lana dabela.

18. ANONIMOA.

XVIII. mendearen hasierakoa.

Gurutzeko Joan deunaren eskulturea.

Zurezko tailua.

(135 x 61 zm.)

Mikel deunaren parrokian. Corella. Nafarroa.

Barroko eratako zizel-lana, errokozko bitxikeria ta errefinamentua daukana. Neurri ez haundikoa, buru-kopeta sendokoteduna.

19. ANONIMOA.

(«Circa» 1730).

Gurutzeko Joan deunaren eskulturea.

Tailua.

(100 x 59 zm.)

Praile Karmeldarren eleizan. Corella. Nafarroa.

Fray Juan de los Santos (ikus: 15. zenb.) zizelkatutakoaren parekotasun haundia dauka. Keinueta eta diseinuan nabaria da antzekotasun hori, baina ez dauka bestearen apaindura oparotasunik ez eta haren besteko fintasunik.

20. ANONIMOA.

XVII. gizaldikoa.

S. Joan Gurutzekoaren eskultura soina.

Tailua.

(72 x 50 zm.)

Praile Karmeldarren eleizan. Corella. Nafarroa.

Busto hau Teresa haundiari zuzendutako aldareko erretaularen atikoan kokaturik dago. Ohizko eskema ikonografikoa aurkesten dau, dakusguz soinean.

21. ANONIMOA.

XVII. gizaldikoa.

Joan deunaren pinturea.

Oleoa.

(208 x 135 zm.)

Praile Karmeldarren eleizan. Corella. Nafarroa.

Santua belaunikoturik eta beso zabalik aldare gainean dagoan Gurutzatuari hitz egiten. Beheko barrenean liburua eta ontzi lora, ohial barrokoa ere goi partean agertzen dala. Diseinuan zailtasun haundi gabeko koadroa.

22. ANONIMOA.

XVII. gizaldiaren bukaerantzakoa.

Joan deunaren pinturea.

Oleoa.

(199 x 138 zm.)

Praile Karmeldarren eleizan. Corella. Nafarroa.

Aldare nagusiko hegaleko orman dagoan oleo honetan, Kristorekin alkarrizketan agertzen da Joan deuna. Koadro honen egiturak, naiz eta guztiz bardina ez izan, analojia argia agertzen dau Corella bertako karmeldar mojen oleoaz (Ikus 16. zenb.) Antzeko berezitasunekaitik jatorri eta garai bardiñekotzat jarri daikeguz.

23. ANONIMOA.

XX. gizaldikoa dirudi.

Gurutzeko Joan deuna otoiz jarreran, pinturea.

Oleoa.

Praile Karmeldarren eleizako lunetoan. Corella. Nafarroa.

24. ANONIMOA.

1778-1781.

Gurutzeko Joan deunaren eskulturea.

Tailua.

(168 x 88 zm.)

Aita Karmeldarren komentuko eleizan. Villafranca. Nafarroa.

Erretaula nagusian epistola aldetik dago kokaturik merituzko zizel irudi hau. Naiz eta egilea ez izan ezaguna, maixutasuna erakusten dau, batez ere aurpegi esku fintasunean. Gainerakoan, Corellako irudien diseinua dauka.

25. ANONIMOA.

XX. mendekotzat har daikegu.

Otoitz jarreran dagoan Joan deunaren pinturea.

Oleoa.

Aita Karmeldarren komentuko eleizan. Villafranca. Nafarroa.

Kupula azpiko petxina batetan, borobil markoak mugatu ta baldintzatzen dauan oleo pinturea.

26. ANONIMOA.
XX. mendekoa.
Gurutzeko Joan beiratean.
Beiratea.
Aita Karmeldarren komentuko eleizan. Villafranca. Nafarroa.

27. ANONIMOA.
XVII. mendearen amaierantza.
Karmeldarren zaindaria dan Karmengo Amaren pinturea.
Olea.
(162 x 128 zm.)
Aita Karmeldarren komentuko eleizan. Villafranca. Nafarroa.

Epistola aldeko transeptua zerratzen dauan paretan dakuogu Ama Brijjiña, karmeldar eta Karmengo ongileak, bere babespean zaintzen. Andra Mariaren ezker eskuman Teresa deuna eta Gurutzeko Joan agertzen dirala. Joan deunak bular gainean daroan dominak, koadro hau santu izandatu aurretik egiña izan zala frogatzen dau.

28. DIONISIO VILLODAS ETA LUCAS DE MENA.
1769.
Gurutzeko Joan deuna erliebean.
Zurean erliebea.
Aita Karmeldarren komentuko goiko klaustroan. Villafranca. Nafarroa.

Erliebe honen konposizioa eta batez ere jantzi - habitu neurriak Gurutzeko Joan baino, dominikar ordenakoren bat dala gehiago dirudi. Baina Gurutzeko Joan dala baieztatu daikegu. Villodas eta Mena, Izarrako zizelkariak, eleizako erretaula nagusiaren eta aldameneko erretaulen egileak, heurak ditugu erliebe honen zizelkariak.

29. T. MARQUES:
1927 (Barcelona).
S. Joan Gurutzekoaren eskulturea.
Zurezko tailua.
(117 x 53 zm.)
Moja Karmeldarren monastegiko eleizan. Etxabakoiz. Iruña.

Zurezko tailua izanik ere, pastazkoa dala dirudi. Sarritan, irudi lantegi honeetan, artea industria bat legez begiratzen dabe; gainera eskakizun asko izanik probintzia guztietara bialtzen ditue tailuak, «serie» bezala landuak dirala. Horrela egindakotzat hartu daikegu irudi hau.

30. H.^a MARIA TERESA DEL NIÑO JESUS.

1927.

Joan deunaren pinturea.

Oleoa.

(132 x 105 zm.)

Moja Karmeldarren monastegiko koruan. Etxabakoiz. Iruña.

Komentu beratan bizi zan (1904-1983) lekaiame batek margoztua. Grabatu ta estanpak eredutzat begi bistan zituala koadro hau margoztukeran, argi dago. Beraz, arte balore haundirik ez dauan oleoa.

31. ANONIMOA.

XVII. mendekoa.

Gurutzeko Joanen eskulturea.

Tailua.

(171 x 94 zm.)

Aita Karmeldarren eleizan. Iruña.

1675rantza landutakoa eta Kastillatik ekarria izan zala baieztatu daikegu. Garai haretan Karmeldarrek Kastilla probintziaz harreman eztuak zituen. Aldare nagusiko erretaulan, ezkerrekaldean dakusgu. Kalitate hobezineko imajina hau Gurutzeko Joan doatsu izendatua zan aldikoa da. Aurpegiaren fintasuna eta eskapularioaren polikromia bikaina dira nabarmenenak.

32. ANONIMOA.

Modernoa. XX. gizaldikoa.

Gurutzeko Joan deunaren eskulturea.

Tailua.

(125 x 59 zm.)

Aita Karmeldarren eleizan. Iruña.

Gurutzeko Joanen erretaula hau XVII-XVIII. gizaldikoa izanda ere, erretaula erdian dagoan Joan santua XX. gizaldikoa dogu. Ohargarriena, eskuan dauan izugarrizko gurutzea da; ezkerrekaldean liburu irekia dau, non «Oh llama de amor viva» irakur daikegu.

33. ANONIMOA.
 («circa» 1670).
 S. Joan Gurutzekoaren pinturea.
 Oleoa.
 (101 x 60 zm.)
 Aita Karmeldarren eleizan. Iruña.

Eleizako erretaula nagusiko behe partean lekturik dagoan koadro hau, nahiko egoera galduan aurkitzen da. Erretaularen aldikoa da, baiña konposizio aldetik eta egitura aldetik ez da goi mailakoa.

34. ANONIMOA.
 XVIII. gizaldikoa.
 Joan deunaren pinturea.
 Oleoa.
 Aita Karmeldarren eleizan. Iruña.

Salesko Frantzizko santuari eskeinitako erretaulan, atiko anguluan, Gurutzeko Joanen koadro barrokoa, herrikoi eratako bat aurkitzen da.

35. ANONIMOA.
 XVII. gizaldikoa.
 Joan deunaren heriotza pinturatan.
 Oleoa.
 Aita Karmeldarren eleizan. Iruña.

Kalitate erdizkakoa dauan ohial hau kupula azpiko petxinan aurkitzen da. Aingeruek eta eleiz gizonak inguratzen dabela, Joan deuna, etzunda, noiz bizi barrira aldatu itxaroten, aurkesten da.

36. ANONIMOA.
 1675ekoa.
 Ama Birjiñaren agerpena eta Joan deuna, pinturea.
 Oleoa.
 (171 x 94 zm.)
 Aita Karmeldarren eleizan. Iruña.

14 oleo tenpluaren lunetoetan kokaturik dagoz. Kalitate aldetik hala holakoak eta barroko estilutakoak ditugu. Ebanjelio partetik, eleizaren buru hegaletik koruraino 9 ohial, eta heurotatik bi Gurutzeko Joanenak.

37. ANONIMOA.

1675koa.

Espiritu Santuaren goi argiaz Gurutzeko Joan idazle pinturea.

Oleoa.

Aita Karmeldarren eleizan. Iruña.

Koadro hau ere eleizako luneto baten aurkitzen da. Zehaztasunak, ikus aurreko zenbakian.

38. FERMIN DE LARRAINZAR.

1704koa.

S. Joan Gurutzekoaren eskulturea.

Tailua.

(67 x 43 zm.)

Aita Karmeldarren koruaurrean. Iruña.

Iruñako arkitekto eta zizelkari zan Fermín de Larrainzarrek landutako irudi txiki hau, erdizkako egiturea eta balore artistiko ez haundikoa dala azpimarra geinke.

39. ANONIMOA.

XVIII. mendekoa.

Gurutzeko Joan deunaren aintzalpen pinturea.

Oleoa.

(223 x 172 zm.)

Aita Karmeldarren koruarrean. Iruña.

Tuterako koadro batek eta hemen dakusgunak gai berbera, eta diseinu antzekoa aurkesten dabe (ikus : 12 zenb.) Vicente Berdusan'en eragiña ba dauala koadro honek dirudi, bai ta Madrideko pintura eskolarena ere. Tonalidade argitsua, margo aberatsak, konposizio interesgarria, hona hemen koadro honen berezitasunik aipagarrienak.

40. ANONIMOA.

XVII. gizaldiaren azkenerantz.

Gurutzeko Joanen pinturea.

Oleoa.

(205 x 145 zm.)

Aita Karmeldarren klaustroan. Iruña.

Jira-birak egiteko klaustroan, barroko eratako ohial hau aurkitzen da, bere behe ertzean zera hau daukala idatzirik: «Divus Joannes de Cruce, Doctor Mysticus».

41. ANONIMOA.

XX. gizaldikoa.

S. Joan Gurutzekoaren irudia.

Beiratea.

Aita Karmeldarren eleizan. Iruña.

42. ANONIMOA.

XVII. mendekoa.

Gurutzeko Joan deunaren eskulturea.

Tailu polikromatua.

(149 x 66 zm.)

San Jose moja karmeldarren eleizan. Iruña.

Aldare nagusiko erretaulan, goikaldean. Artelan ederra benetan, ez aurpegian eta esku zehaztasunetan soilik, bai eta jantzi eta soin-gaineko apaingarri guztietan ere. Jatorrizko polikromia mantentzen dau eta kontrastasu berezia soingaineko zuriaren eta habito —eskapulario ilunen artean.

43. ANONIMOA.

XVII. mendekoa.

S. Joan Gurutzekoaren pinturea.

Oleoa.

(81 x 58 zm.)

San Jose moja Karmeldarren eleizan. Iruña.

Koadro hau pizka bat galduta aurkitzen da. Belaunikoturik dago Joan deuna, gurutzea, buruazurra, atribuzio tipikoak inguruan diralarik. Egitura ona eta uka ezi-
ñeko balorea dauka oleo honek.

44. ANONIMOA.

XVII. mendekoa.

Gurutzeko Joan deunaren pinturea.

Oleoa.

(207 x 144 zm.)

San Jose moja Karmeldarren klaustroan. Iruña.

Nafarroan diseinua antzekoa daben hiru koadro aurkitzen ditugu. (Ikus: 16. eta 22. zenb.) Gurutzea lepoan daroan Jesukristorekin alkarrizketan agertzen da Joan deuna. Santuaren bizitzako pasarte hau zeharo ezaguna zan, batez ere Diego de Astor, Juan Federico Leonart eragiñez honelako estanpak eta grabatuak onartuak eta atsegiñak ziralako herriarentzat.

45. ANONIMOA.

XVII. mendekoa.

Ama Leonorri egindako epaiaren pinturea.

Oleoa.

(133 x 93 zm.)

San Jose moja Karmeldarren goiko klaustroan. Iruña.

XVII. gizaldiaren erdi unerantz margoztutako koadroa, naiz eta urte batzuk geroago ikutu batzuk ezagutu. Ama Leonor, Iruñako karmeldar komentuaren sortzaile kidea, epaitua izango da. Epailari bezala Teresa deuna eta aldeztzaileak Jose deuna eta Gurutzeko Joan izango dituala.

46. ANONIMOA.

XVIII. gizaldikoa.

Karmendo Ama karmeldar ordenako santuen babesle pinturea.

Oleoa.

(199 x 308 zm.)

San Jose moja Karmeldarren klaustroan. Iruña.

1760 urte inguruan egindako artelana, erroko eratakoa, neurri itzelezkoa eta ikonografia batibat atipikokoa. Ama Teresa, Gurutzeko Joan, eta beste karmeldar bi agertzen dira, Elias igarlearen pasarte bi ere ikus daikeguzela.

47. ANONIMOA.

XVII. gizaldikoa.

Gurutzeko Joan deunaren eskulturea.

Zurezko tailu polikromatua.

(126 x 65 zm.)

Katedraleko artxiboko gordelekuan. Iruña.

Lehenago Karmeldar Kalzaduen eleizako erretaulan izan zan irudi hau, gaur egun Katedraleko artxiboko gordelekuan dago. San Joan Gurutzekotzat jartzen eta hartzen dogu. Esku eskuma moztua eta ezkerrean liburua dauan, egitura ederreko irudi honek, habito-jantzi ertz hegaletan polikromia eta «estofado» lana agertzen dau.

48. ANONIMOA.

XVII. mendekoa.

Gurutzeko Joan ete danaren eskulturea.

Zurezko tailua.

(122 x 63 zm.)

Katedraleko artxiboko gordelekuan. Iruña.

Neurriak, egiturak, keiñu guztiak aurreko irudiarenak ditu. Gainera jatorri bardiña, erretaula bardiña, zizelkari bat bera izan zituela, nabari dago. Baiña, zelan izan daiteke erretaula baten, santu beraren irudi antzeko bi izatea? Bestalde, soingainekoko «kapilla» zurian, bular gainean, zulo txiki bat odol batzuek aztertzen da. Zehaztasun guzti honek Gurutzeko Joan deuna ez dala irudi honetan aurkestua esatera bultzatzen gaitue.

49. ANONIMOA.

XVII. gizaldikoa.

San Joan Gurutzekoa ete danaren eskultorea.

Zurezko tailua.

(167 × 97 zm.)

San Agustin parrokian. Iruña.

Parrokia honetako hegaleko erretaula baten, aurkesten goazen irudi bi, Gurutzeko Joan diralakoak aurkitzen dira. Naiz eta Gurutzeko Joanen atribuzioek azaleran zizel lan bi honek, ezbaiek sortezten ditue. Jantzi eta soingainekoak Karmeldar Kalzaduenak, zabal, eta apaintsu jausten jakezela ikusten ditugu egitura oneko irudiok. Zur moldearen atzekaldeko barrua hutsik aurkesten ditue.

50. ANONIMOA.

XVII. gizaldikoa.

Gurutzeko Joan deunaren eskultorea izan daitekena.

Zurezko tailua.

(162 × 98 zm.)

San Agustin parrokian. Iruña.

Aurreko zenbakian esandakoa bir-esan daikegu imajiña honi buruz. Ene iritzi apalean Gurutzeko Joan deuna dela baieztatu daikegu. Ezkerrean liburua, eskuman gurutzea, oinpean deabrua, hona hemen San Joan Gurutzekoaren hiru berezitasun ezagunak. Gainerantzean, barroko diseinu nabariak aztertzen da zizelan hau, jantzi tolestura estu gogorak, oihal puntak airean, soina bera ere zig-zag kizkurtsuan aurkesten dauala.

51. FLORENTINO ISTURIZ.

XIX. gizaldikoa.

Joan deunaren eskultorea.

Tailua.

(172 x 17 zm.)

Moja Karmeldarren monastegiko eleizan. Lizaso. Nafarroa.

Iruñako zurgina ta doratzailea zan. Agirietan agertzen danez, erretaularen diseinuaz ere, bera arduratu zan. Irudiegile ziran lantegi honei ezin da eskatu goi mailako imajinak. Irudi honetan eskema ikonografiko ohizkoa aurkesten da.

52. ANONIMOA.

XIX. gizaldikoa.

Gurutzeko Joan deuna dalmatika bordatuan.

Moja Karmeldarren monastegiko sakristian. Lizaso. Nafarroa.

Komentuko mojen ahotan bizi-bizi irauten dauan tradizioaren arauera, hiru dalmatika ditue, XIX. gizaldian egindakoak. Heurotan agertzen diran irudien urra eta zeta Cura de Santa Cruz, apaiz eta gerrilariak, moja komunitateari emondako militar jantzietatik ateratakoak dira.

GIPUZKOA

53. ANONIMOA.

XX. mendetako.

Gurutzeko Joan deunaren eskultorea.

Tailua.

(161 x 61 zm.)

Aita Karmeldarren eleizan. Donostia.

Aldare nagusi ondoko, eskuma aldeko aldarean aurkitzen da Joanen irudi hau. Orain aldiko irudia dogu, baiña diseinu ohizkoa ta klasikoa aurkezten daualarik. Irudi benetan baretsua, jantziak pisutsu jausten, ezelako mugidarik gabe aurkesten jakuna.

54. ANONIMOA.

XIX. mendekoa.

S. Joan Gurutzekoaren eskultorea.

Tailua.

(171 x 93 zm.)

Moja Karmeldarren eleizan. Donostia.

XIX. gizaldiko gerrateen ondorioz, erretaula hau guztiz apurtuta geratu zan. 1860. urterantz, aldare nagusiko erretaulak barrizatu beharra eukan, irudi eta guzti.

Gurutzeko Joan deunaren imajiña, eta beste batzuk, garai horretan Valencian erositakoak dira. Nor izan zan zizelkaria edo zein lantegitan izan zan egiña, ez dakarre agiriak.

55. ANONIMOA.

XIX. mendekoa.

Gurutzeko Joan deunaren irudia.

Tailua.

(79 x 40 zm.)

Moja Karmeldarren klaustroan. Donostia.

Neurri txikia, agitura nahiko sinplea, Ordenako jantzi-habituak birpintatuak dituala dager. Baina bere diseinu apalean, adierazkortasun eta expresibitate berezia dau.

56. ANONIMOA.

XX. mendekoa.

Joan deunaren eskulturea.

Tailua.

(125 x 54 zm.)

Moja Karmeldarren eleizan. Zarauz.

Monastegi honetako lekaiameak Frantziatik etorritakoak ziran. Kontutan hartzekoa da 1906an ereiki zalá lekaimetxe hau. Joan deunaren irudia urte horretan izan zan jarria, eleizako erretaula nagusian; beraz, modernoa da.

57. ANONIMOA.

XX. mendekoa.

S. Joan Gurutzekoaren pinturea.

Oleoa.

(21 x 25 zm.)

Moja Karmeldarren koruan. Zarauz.

1972rantz, Lazkaon aurkitzen dan koadro baten kopia. Ederlan berezia ez izanik, kopia egite onekoa dala baieztatu daikegu.

58. ANONIMOA.

XX. mendearren hasierakoa.

Gurutzeko Joan deunaren eskulturea.

Zurezko tailua.

(130 x 50 zm.)

Moja Karmeldarren eleizan. Zumaia.

1918an eresia eta eleizako erretaulan jarria. Ez dakigu zein tailer etxetako. Beraz, aro barrikoa eta egitura onekoa, Joan deunaren diseinu tipikua daualarik.

59. ANONIMOA.

Joan deunaren irudia.

(61 x 64 zm.)

Moja Karmeldarren beheko koruan. Zumaia.

Olot'en landutako irudia. XIX. gizaldikoa izan daiteke. Neure oharpenak eta arazoak ditut, bai lehen gaiari buruz (pastazkoa ete?) eta bai dataziotzaz. Gainerakoan ba ditu bere zehaztasunak: burusoil, bizartsu, esku-besoan jarrera, etab.

60. ANONIMOA.

XVII. gizaldikotzat emon daikegu.

S. Joan Gurutzekoaren pinturea.

Oleoa.

(123 x 99 zm.)

Moja Karmeldarren beheko koruan. Zumaia.

Jesukristo gurutzatua Joan deunagaz alkarrizketan: «¿Qué quieres por los servicios que me has hecho? Padecer y ser despreciado por vos». Corella eta Iruñako koadroetan (ikus: 16, 22, 44. zenb.) gai berbera, alkarrizketa bardiña, haietan latineraz, hemen gazteleraz. Koadro honen jatorriari eta balore artistikuari buruz zenbaki hareetan gogoratutakoa birresan daikegu.

61. ANONIMOA.

Gurutzeko Joan deunaren pinturea.

Oleoa.

(102 x 74 zm.)

Moja Karmeldarren klaustroan. Zumaia.

Santua belauniko jarririk auskezten da, mahi baten gainean dagoan Gurutzatuaren argi distiratsuak inguratzen dauala. Ohizko atribuzioak ere, gurutzea esku artean, lili sorta, liburua etab. ikusten diralarik.

62. PABLO URANGA.

1927.

Joan deunaren pinturea.

Oleoa.

Moja Karmeldarren eleizan. Zumaia.

Pintatzaileak berak moja komunitateari emona. Tonalitate nagusia eta bakarra marroi margoa. Diseinua ohizkoa eta konposizio errazaz baiño, arineketa egindako koadroa dirudi. Pertsonalitate haundikoa zan Uranga, azkarra ohialak pintatzen, eta ez zan barriz ikutuka ibiltzekoa.

63. FLORENTINO ISTURIZ.

1915.

Gurutzekoa Joan deunaren eskulturea.

Tailua.

(165 x 90 zm.)

Moja Karmeldarren eleizan. Azkoitia.

1915eko urri-azaroko agirietan dakusgunez Florentino Isturiz'ek, berak, izenpetutako agirian, Ama Teresaren eta Joan deunaren bi irudiagaitik 1500 pezeta eskuratu behar dituala eta gero eskuratu dituala baieztatzen dau.

Egitura ederreko irudia, Lizasokoa baiño finagoa (Ikus: 51. zenb.) Urrezko apaingarri ugari habitu-jantzi, eskapulario, soingaineko ertz hegaletan.

64. ANONIMOA.

XVII. gizaldikoa.

S. Joan Gurutzekoaren pinturea.

Oleoa.

(35 x 61 zm.)

Aita Beneditarren monastegiko klaustroan. Lazkao. Gipuzkoa.

Gaur egun Aita Beneditarren monastegi hau, 1641. urtean Aita Karmeldarrak ereikia izan zan. 1835ean exklaustrazioa ezagutuko dau eta aurrerantzean Aita Karmeldarrak ez dabe monastegi hau birreskuratuko. Aita Beneditarren barrizkuntza ugari egin ditue, baina eleizearen lehen egiturea errespetatuz.

Koadro honetan Gurutzeko Joan zutik aurkesten jaku, diagonal tankeran diseinatua, liburua, lumea, gurutzea batetik; aingerua, burua, eskua bestetik orekatuz. Tenebrismo pizka bat, nahiko exprezio berezia dauala «Cántico Espiritual»en egileak. Hona hemen barroko eratako pintura estimagarri honen bereiztasunak.

BIZKAIA

65. FRANCISCO FONT.

Atribuigarria.

XX. gizaldikoa.

Gurutzeko Joanen eskulturea.

Tailua.

(195 x 73 zm.)

Moja Karmeldarren monastegiko eleizan. Markina.

Francisco Font'ek zizelkatua izan edo ez, egitura ederreko ederlana dogu imajiña hau. Lan fiña dagerrena aurpegi eskuetan ezeze habito, soingaineko eta beste zehaztasunetan. Batzuen ustez Font'ek landutako irudien bereiztasunak nabari dira zurlan honetan, baina egilearen ziurtasunik ez dago.

66. M. GERTRUDIS DE SANTA TERESITA.

XX. gizaldikoa.

S. Joan Gurutzekoaren pinturea.

Oleoa.

(31 x 40 zm.)

Moja Karmeldarren monastegiko klaustroan. Markina.

Monastegiko lekaiame batek margoztua. Inspirazio iturria grabaturen edo estanparen bat izan ebala dirudi. Santua belaunikoturik, gurutzea besarkatzen dauala, ohizko jarreran, agertzen da. Lorpenak baino mugatasunak nabariago dirala koadro honetan ezin ukatu.

67. ANONIMOA. KASTILLAKO ESKOLAKOA

XVIII. gizaldikoa.

Joan deunaren eskulturea.

Zur polikromatuzko tailua.

(156 x 63 zm.)

Aita Karmeldarren eleizan. Markina.

Imajiña honek bardintasun ugari ditu Correllan dagozenekaz: neurrian, diseinuan, gazte itxuran, apaingarrietan (ikus: 15, 17, 19. zenb.) Konposizioa eta apaindurak gogoan izanik erroko eratakotzat emon daikegu.

68. ANONIMOA.
XVIII. gizaldikoa.
Andra Maria Karmengo Ordenaren zaindari pinturea.
Oleoa.
(141 x 200 zm.)
Aita Karmeldarren eleizan. Markina.

Margo ohial bikaina, eleizako Ebanjelio aldeko transepto orman dakusguna. Lehenengo planoan Teresa deuna eta Gurutzeko Joan Andra Mariaren ezker eskuma agertzen dirala. Barroko eratako oleoa, Karmeldar komentuetako arteagaz identifikatua.

69. ANONIMOA.
XX. gizaldikoa.
S. Joan Gurutzekoaren pinturea.
Aita Karmeldarren eleizan. Markina.

Zaragozan ospetsu zan pintura eskolak egiñikotzat dago. Kupula azpiko petxinan aurkitzen da Gurutzeko Joan, ohizko jarrera eta atributo ezagunak inguruan dituala.

70. ANONIMOA.
XVIII. gizaldikoa.
Joan deunaren eskulturea.
Zurezko tailua.
(150 x 80 zm.)
Aita Karmeldarren eleizan. Markina.

Eleizako erretaula nagusiko goiko kalean ikus daikegun imajiña. 1773an Andres de Laca'ren protokolo agiri baten, aldare batzuk urreztatzeke baldintzak jartzen dira. Erretaula nagusia, bere irudi eta guzti, osoturik egoala garai horretan, dirudi.

71. ANONIMOA.
1970.
S. Joan Gurutzekoaren irudia.
(160 x 68 zm.)
Moja Karmeldarren eleizan. Durango.

Olot'en, Geronan, erositako imajina hau, naiz eta neurri normalekoa izan, pastazkoa edo eskaiolazkoa dirudi. Edozelan ere, balio eskas samarrekoa.

72. ANONIMOA.

1948.

Gurutzeko Joan deunaren beiratea.

Moja Karmeldarren monastegiko eleizan. Durango.

Donostiako etxe batek jarria. Maumejean tailer etxeak, agian?

73. ANONIMOA.

1968.

Gurutzeko Joan deunaren irudia.

(135 x 63 zm.)

Moja Karmeldarren monastegiko eleizan. Getxo.

Madriko T. Santa Rufina irudi lantegian erositua. Pastazkoa izanik ezin deusagu balio berezirik emon.

74. ANONIMOA.

1979.

Gurutzeko Joan deunaren pinturea.

Oleoa.

(79 x 58 zm.)

Moja Karmeldarren monastegiko koruan. Getxo.

Bertako lekaimetxeko moja batek margoztua. Santuaren inguruko zehaztasunak amaitu gabe dagozela, dirudi. Irudia nahiko ondo asmatua eta lortua, baina gainerakoa, argi-illun kontrakotasuna, besterik ez da.

75. ANONIMOA.

XX. gizaldikoa.

S. Joan Gurutzekoaren eskulturea.

Tailua.

(154 x 62 zm.)

Aita Karmeldarren eleizan. Begoña. Bilbo.

Aro barriko dan irudi honek, hala holako egiturea dauka, diseinu ta eskema ohizkoekaz egina dogu, soingaineko tolesturetan orijinaltasun apur bat agerteraziz.

76. ANONIMOA.
 XX. gizaldikoa.
 Joan deunaren pinturea.
 Ohialean oleoa.
 (170 x 125 zm.)
 Aita Karmeldarren eleizan. Begoña. Bilbo.

Aita Karmeldarren eleizetako petxinan ikusi daikegun irudia. Hemen ere: erdizkako kalitatea, margo ilun samarrak eta ohizko konposizioa aurkesten daualarik.

77. FRAY MAURO DE LA DOLOROSA (ANTONIO MARIA RIZZO).
 («circa» 1950).
 S. Joan Gurutzekoaren pinturea.
 Oleoa.
 (200 x 99 zm.)
 Aita Karmeldarren klaustroan. Begoña. Bilbo.

Aita Karmeldar pintatzaile honek ba ditu koadro bikainak, batez ere estimagariak dira klasikoen bere kopia batzuk. Baina, hain zuzen ere, oleo hau ez da goi mailako kalitatezkoa, konposizioan ilun samarra, margoan bardintsua eta jarreran estatikoa ikusten dogula.

78. FRAY MAURO DE LA DOLOROSA (ANTONIO MARIA RIZZO).
 («circa» 1950).
 S. Joan Gurutzekoaren pinturea.
 Oleoa.
 (94 x 118 zm.)
 Aita Karmeldarren klaustroan. Begoña. Bilbo.

Gurutzeko Joan erdi belaunikoturik, Jesukristoren irudia ikuspen mistikoan begizatzen dauala aurkezten da koadro honetan, Jesukristorekin alkarrizketa sumatzen dala. 16, 22, 44. eta 60. zenbakietan ikusi ta urkuldu ahal izan dogun gai bera, azaltzen da hemen ere, baiña orijinaltasun bereziaz: Alkarrizketa ez dago filakterietan, ertz hegal baten baino. Aldarea diseinatuta bakarrik, bestekaldean zutabe klasikoak agertzen dirala. Beraz, artelan egitura onekoa.

79. ANONIMOA.
 XVIII. gizaldikoa.
 S. Joan Gurutzekoaren eskulturea.
 Tailua.
 (106 x 60 zm.)
 Aita Karmeldarren eleizan. Larrea. Bizkaia.

Arte ondasun ugari ta baliotsuak izan zituan lekaidetxe honek, baina, batez ere 1809an, Jose Bonaparteren arrapakerian, arte lan asko desagertu egin ziran (gaur egun, Kataluña eta Euskadiko museoetan aurkitzen diralarik batzuk). Zizel lan hau neurri naturala baino zerbaiz baxuagoa da: karmeldar eleizetan aurkitzen diran beste zenbat irudiren diseinu eta eskema berbera dauana.

80. ANONIMOA.

XX. gizaldikoa.

Gurutzeko Joan deunaren pinturea.

Oleoa.

Aita Karmeldarren eleizan. Larrea. Bizkaia.

Zerutar ikuspen aurkezten dauan margo ohial hau, kupula azpiko petxinan datusgu, Santua erdi belaunikoturik dagoela. Erdizkako kalitatezko margoa, argi eta kolorazioan iluntsu eta konposizioan barroko eratako zehaztasunak ditu.

81. ANONIMOA.

XVIII. gizaldikoa.

S. Joan Gurutzekoaren eskultorea, izan daitekena.

Tailua.

(131 x 65 zm.)

San Martinen parrokan. Zamudio. Bizkaia.

Barrokoaren azken fasekoak ditugu eleiz buruko hiru erretaulak: aldare nagusikoa eta nagusiaren aldamenekoak. Hegaleko erretaulan aurkitzen dan Joan deuna (suposatua), garai bardinean, hau da, XVIII. gizaldian kokatu daikegu. Gurutzeko Joan deunaren irudia, suposatua? Hain zuzen ere, bere identitatea ez dagoalako argi. Eleiza honen ondasun katalogoa egin ebenak, Gurutzeko Joan deunatzat dauke imajiña hau, baiña identitate eta atribuzio hori ez da zalantza gabekoa: Soingaineko baltza (ez, dagokion zuria), eskapulario eza, gerriko bezala kordioa dindilizka eroateak etab., ezbaizak sortzen ditu ikusle adituarengan.

Demagun Gurutzeko Joan dala: Barroko eratako egitura ederreko tailua. Ezkerrean liburu irekia, eskuman lumea (hau falta jakola), eta goi hegalatik uso zuria (Espiritu Santua) inspirazio gizan. Azken zehaztasun hau, oleoetan nahiko ezaguna, baina zizel lanetan, euskal herrian, ez da ezagutzen uso hori.

José Ramón Iturriaga
Zornotza

ESTUDIO ICONOGRAFICO DE SAN JUAN DE LA CRUZ EN EUSKADI SUR

En el País Vasco no abundan las representaciones de San Juan de la Cruz. La razón de esta escasez iconográfica, posiblemente, esté en el hecho de que este santo no ha sido muy popular. Su figura, su carisma y su mensaje ha tenido gran aceptación en círculos selectos y en torno a conventos masculinos y femeninos de la Orden Carmelitana, siendo muy limitado su arraigo en el pueblo.

Estas circunstancias condicionarán la representación iconográfica del santo, siendo ésta más destacada y abundante en las casas de la Orden del Carmen y más esporádica en casas de otras comunidades o parroquias. En ningún caso aparece el autor del «Cántico Espiritual» como titular de una basílica, parroquia o ermita.

Son 81 las obras artísticas de San Juan de la Cruz, recogidas, más que seleccionadas, en las provincias de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya. Todas estas piezas artísticas son de los siglos XVII, XVIII, XIX y XX. Al no contar con trabajos monográficos sobre esta iconografía sanjuanista, 6 piezas artísticas presentan algunas dificultades y dudas sobre su datación; queda constancia de ello en el comentario correspondiente.

Con este trabajo no se pretende agotar el catálogo de la representación iconográfica del santo, sino más bien ofrecer una primera recopilación de sus representaciones en estas provincias vascas.

Presentamos este trabajo sin una clasificación sistemática de artes figurativas, y sin una ordenación cronológica, siendo la única clasificación: la distribución iconográfica por provincias.

ETUDE ICONOGRAPHIQUE DE SAINT JEAN DE LA CROIX AU PAYS BASQUE DU SUD

Le représentations de Saint Jean de la Croix n'abondent pas au Pays Basque. La raison de cette pénurie iconographique est dû vraisemblablement au fait que ce saint n'est pas très populaire. Sa personnalité, son charisme et son message ont été très bien acceptés dans des cercles choisis et autour des couvents masculins et féminins de l'Ordre du Carmel, mais son enracinement dans le peuple reste très limité.

Ces circonstances conditionneront la représentation iconographique du saint, celle-ci s'avérant plus remarquable et plus abondante dans les maisons de l'Ordre du Carmel et plus sporadique dans d'autres communautés ou paroisses. L'auteur du «Cantique Spirituel» ne paraît en aucun cas en tant que titulaire d'une basilique, paroisse ou ermitage.

On a dénombré, plus que sélectionné, 81 oeuvres artistiques ayant pour sujet Saint Jean de la Croix, dans les provinces de Alava, Guipuzcoa, Navarre et Bizcaye. Toutes ces pièces artistiques datent des XVII^e, XVIII^e, XIX^e et XX^e siècles. Les monographies sur cette iconographie sanjuaniste n'existant pas, six pièces artistiques présentent quelques difficultés et inspirent des doutes sur leur datation; le commentaire correspondant en fait la constatation.

Avec ce travail on ne prétend pas épuiser le catalogue de la représentation iconographique du saint, mais bien plutôt offrir une première compilation de ses représentations dans ces provinces basques.

Nous présentons ce travail sans classification systématique des arts figuratifs, et sans ordre chronologique, l'unique classification étant: la distribution iconographique par province.



Murgia (Araba), Karmeldarren monastegian (Egilea: Manuel Losada).



Gasteiz, Aita Karmeldarren elizan (Egilea: F. Font).



Los Arcos (Nafarroa), elizan.



Tutera, Klaratarren monastegian (Egilea: Vicente Berdusan).



Korella, San Miguel elizan.



Korella (Egilea: Fray Juan de los Santos [atribuigarri]).



Villafranca, Aita Karmeldarren elizan.



Villafranca (Nafarroa), Karmeldarren elizan.



Iruña, Aita Karmeldarren elizan.



Larrea-Zornotza, Aita Karmeldarren elizan.




Lazkao, Benediktinarren monasterioan.



Iruña, Karmeldar lekumeixean.



Markina, Aita Karmeldarren elizan.



Zumaiá, Karmeldar lekainetxean.